DBH OSOA

IDAZLEAK IKASTETXETAN 2022-2023

AURKEZPEN GIDA

EIE Euskal Idazleen Elkartea

OHARRA

Idazlea hautatzerakoan, eskuragarri izango dituzue idazlearen bibliografiako liburu asko, hemen, lagin moduan ziklo honetarako nabarmendutakoa besterik agertzen ez den arren.

Aukeratzerakoan edozein zalantza edo arazo izatekotan, mesedez, jarri zaitezte gurekin harremanetan email helbide honetan: komunika@idazleak.eus

IDAZLEEK EUREN BIBLIOGRAFIATIK NABARMENDUTAKOAK

AURKIBIDEA

Sakatu liburuaren azalean eleberria ezagutzeko







Izenburua: LIMA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra: Nerabe izatea zaila da berez; are zailagoa ikasturtea hasi berritan superbotere baten jabe zarela jakiten duzunean.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Lima -Pasartea-

—Lili izena dut, bai. Gurasoek izen inozoen zerrenda batean edo aurkituko zuten izena. Gorroto dut nire izena. Beraz, deitu Lima. Bertokiko herrigunetik hiru kilometrora dagoen auzo galdu batean bizi naiz, Osinalden, are baserri galduago batean, Bizenta Mogel institutuko zuzendari andere zorrotzarekin eta euskarako irakasle txit aspergarriarekin.
—Lili! —Iñaki haserretu egin da.
—Barkatu —esan du Limak, baina ez da damurik nabari haren begiradan—. Arantxa eta Iñakirekin bizi naiz, gurasoekin. Tira, ez dira nire benetako gurasoak. Esan nahi dut, ez direla nire guraso biologikoak —Limak begirada hotza bota dio aurrean harri eta zur dagoen Iñakiri—. Txikia nintzela mendian aurkitu omen ninduten. Beraiek gaiaz inoiz ezer kontatu ez didaten arren.

IDAZLEA: MIREN GORROTXATEGI

Saio hauen bitartez, ikasleak hain urruneko zaien literaturaren mundura gerturatu nahi izaten ditut, eta idazle izatera nola iritsi nintzen azaltzen diet lehenik. Idazle ibilbidea azalduta, landu duten liburura pasatzen naiz: idazte prozesua nolakoa izan den eta nola bizi izan dudan haiekin partekatzen dut, eta eleberria bera xeheago aztertzen dugu elkarrekin ondoren. Izan ere, ikasleen iritziak eta inpresioak jasotzea pribilegio bat da niretzat. Dena den, aurrez irakasleen proposamenak entzun eta ikastetxearen beharrak eta nireak bateratzea eta adostea deritzot egokiena, esperientzia ahalik eta aberasgarriena izan dadin guztiontzat.



Izenburua: 2022ko Hatsaren poesia
Argitaletxea: Hatsa
Deskribapen laburra: Liburuan ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute urtetan, zenbait ikastetxe eta ikastolatan poesia-tailerrak egin baitira, eta gustatuko litzaiguke poesia eta sentiberatasuna ikastetxeetan txertatzea poesia-tailerren bidez.

EZAGUTU ELEBERRIA!
2022ko HATSAREN POESIA -Pasartea-

(...)
“AMETSETAKO AMA
Nire ametsetako
ama kuttuna
zu
bare-barea
Itsasoa bezala batzuetan...
Oso baliotsua zara
itsas azpia bezala,
ni arraina naiz
eta zu itsasoa zarenez
Ni zaintzen nauzu.
Eskerrik asko
ni sortzeagatik.
Oso aberatsa naiz.

Unax Ndong Etxezarreta, 10 urteko haurra
2011ko urtarrilaren 26an sortua
Euskal-Serer”.
(...)

IDAZLEA- dinamizatzailea: AINARA MAYA

Haur eta gazte literaturako irakurleak aurrez aurre ezagutzeko aukera eman digu, eta luxua deritzogu. Izan ere, liburuan ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute urtetan, zenbait ikastetxe eta ikastolatan poesia-tailerrak egin baitira, eta gustatuko litzaiguke poesia eta sentiberatasuna ikastetxeetan txertatzea. Eskolara joan aurretik irakaslearekin hitz egitea gustatzen zaigu, saioaren nondik norakoak azaldu eta xehetasunak adosteko.



Izenburua: Arroz urez
Argitaletxea:
TXALAPARTA

Deskribapen laburra:
Puzzle baten moduan txatalez osatuta dauden hamasei atal dauzka liburuak, zeintzuen bidez Euskal Herriaren historia garaikidearen ikuspegi pertsonal bat ematen den

EZAGUTU ELEBERRIA!
Arroz urez -Pasartea-

Bilbo niretzat Ibaizabal ugerra da. Ruper Ordorikaren “Hautsi da Anphora” Deustuko unibertsitateko paraninfoan, eta Bernardo Atxagaren “Etiopia” eta “Ziutateaz”. Bilbo da herdoilaren tristeziarekin batera ziutate honen kolorea udazkenetan lanbroa da eta bere sabaia laino baso bat non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia kantatzea Bolantinetik Areatzara bidean. Bilbo da Joselu Zerezeda Zazpikaleetako Donejakue plazatxoaren erdian manifestariei aldarri egiten, Olarra enpresariaren nagusikeriaren aurka, Euskaldunako borroka eta Otsailaren 23ko estatu kolpea, Leonard Cohen entzutea teilatupe batean porroak errez, hirugarren, laugarren eta bosgarren maitasunak da Bilbo niretzat, batzuetan hurrenkera horretan, eta bestetan dena nahasian, nire bihotz galduan. Bilbo da Lamiak eta Txomin Barullo eta Albia lorategiak eta Iruña kafetegia. Bilbo da bizitzan edan dudan ebakirik hoberena, eta oraindik metrorik eraikitzeko asmorik ere ez zegoenean haren metroko baldosa zuriak aipatzen zituen poema galdua da, eta bere kaletan galtzea, ezezagunez inguratuta. Bilbo Bartzelona ezagutzeko prestaketa urbanoa izan zen. Bilbo zen euskararen agonia. Bilbo izan zen Martuteneko ihesaldirako behar nuen ibilgailua alokatzera joan nintzen hiria, furgoneta gorri bat gidatuz utzi nuena Sanfermin bezperan, eta hogeita hamalau urte beranduago, Arriagan Macbethen euskarazko estreinaldia ikustera joan nintzenean nazioarteko polisekin lehiatzeko atondu, araztu eta makillatu arren, bere betiko arima galdu ez duen hiria.

IDAZLEA: MIKEL ANTZA

Nire idazletzak bi aldi oso desberdin izan ditu. Gaztarokoak eta gero, helduaroan berriro hasi nintzen idazten. Atzerri eleberrian nire bizi-esperientzian oinarritutako bidaia literario bat proposatzen dut, literaturak bizitzan duen garrantzia azaleratuz.

Arroz urrez liburuan aldiz Burgosko Auzia aitzakia hartuta Euskal Herriaren azken 60 urteotako ikuspegia eskaintzen dut nire biografiaren talaiatik begiratuta.

Izenburua: BALIO ERANTZIA
Argitaletxea: BALEA ZURIA
Deskribapen laburra:
Balio erantzia hitz egoki eta neurtuekin egia esateko ahalegina da, ezer ez eta festa. Zeharkatzen ditugun eta gaituzten oinarrizko gaiak ditu hausnargai Ekaitz Goikoetxearen aforismo liburuak: Bizitza, heriotza, denbora, isiltasuna, hitza, hizkuntza, identitatea… Sakon nahiz umorez, hausnartzeko, pentsamendua garatzeko, argudiaketa eta arrazoiketa lantzeko, eztabaidatzeko, hizkuntzaren baliabideez eta ederraz jabetzeko gozagaiak dira Balio erantzia liburuko aforismoak, hitz gutxitan asko esaten dutenak, arrasto luze eta sakona utziko dizutenak.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Balio Erantzia -Pasartea-

(...)
* Bat egiteko bi behar dira.

* Besteen lekuan jartzeko mugitu egin behar.

* Denborarekin denborarik gabe geratuko gara.

* Guztiok dugu gabeziaren bat soberan.

* Hitza, pentsamenduaren oihartzuna ezpainetan.

(...)

IDAZLEA: EKAITZ GOIKOETXEA

Liburua irakurri eta landu duten nerabe eta gazteekin solastu eta bizipenak partekatu ahal izatea ederra da oso. Ikastetxera joan aurretik, garrantzitsu irizten diot irakaslearekin saioa nola bideratuko dugun aztertu eta adosteari, berak ere izan eta egin baititzake aberasgarri eta eraginkor izan daitezkeen proposamen eta ekarpenak. Gainerakoan, saioaren egunean aforismoen inguruko sarrera labur bat egin eta aforismoek gure gizartean, jakinaren gainean baina oharkabean askotan, duten presentziaz eta indarraz ohartarazten ditut, atsotitzekin, esaera zaharrekin izan dezaketen antzekotasun eta aldeez… Liburuaz eta sormen prozesuaz hitz egiten diet, pentsamenduaren lanketaz, esanindarraz, euskarak eskaintzen dizkigun baliabideez, liburua zeharkatzen duten gaiez. Tartean-tartean aforismoak eta aforismoekin ondutako testutxoak irakurri eta tarketakuz, ze aforismok zer eragin dien galdetuz, eztabaida eta arrazoiketa filosofikoak bideratzen ditut. Eta bukatzeko, nire hainbat aforismok liburutik herriko hormetara, kamiseta eta jertseetara, kantuetara egin duten bidea erakutsi eta aforismoak sortzen ere jartzen ditut.



Izenburua: Andraizea
Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra:

Mundu paraleloak habitatzen dituzten pertsonez osatua dago ipuin-bilduma, errealitateak une oro egiten du irudimenarekin dantza, talka eta batez ere jolas. Ikusten duguna, ikusi nahiko genukeena, irudikatzera ausartzen garen horrekin nahasten da etengabe ipuin bakoitzeko puzzlea.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Andraizea -Pasartea-

Lepoa tente ibiltzen da PIli kalean, aspaldiko ohitura du. Ez du txikia delako egiten, metro eta hirurogeita hamar zentimetro izango da luze. Piliri lepo luze eta lirainak gustatzen zaizkio, Audrey Hepburnenak bezalakoak. Horregatik du Audrey Hepburnen argazki bat gau-mahaiaren gainean, eta horregatik gustatzen zaio Audrey Hepburnekin lo egiten duela esatea. Margak uste du Pili ez dabilela oso ongi, Belauntzegitik itsasoa ikusi nahi duela esatea ere! Denek dakite itsasoa urrutiegi dagoelako ez duela inork igeri egiten ikasi Belauntzegin.

IDAZLEA: IRATI GOIKOETXEA

Ipuin bilduma batek aukera ezberdinak eskaintzen ditu lanketarako. Ikasle bakoitzak liburu osoa irakurri, edo ikasle bakoitzak ipuin bat irakurri eta gainerakoei kontatu… Liburu jostaria da Andraizea, jolaserako eta solaserako, nork bere bizipenak partekatzeko, aukera ematen duena. Eta ariketa hori proposatutako adinetan egitea oso garrantzitsua. Idazleak idazketa prozesuaren berri emateaz gain, ipuin bakoitzak atzean ezkutatzen duena ere partekatuko du ikasleekin.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Katuak jandakoa -Pasartea-

(...)
Patioan Iraultza nagi da Zigor bilatu eta lana elkarrekin egitea proposatzeko, eta komuneko ispilua bona madarikatu batzuk kentzeko erabili ondoren, atetik hurbil gorde da Alaitzekin ogitartekoa jatera, hor baitago epelen. Sofi eta Alaine batu zaizkie, baina Iraultzak nahiago du saskibaloian ari direnei begiratu, Go!azenen gertatu diren azken haserreen eta maiteminen berri izan baino eta, azkenean, nork esango zion, neba izan da haren asperduraren aurkako salbazio-taula.
(...)

Izenburua: KATUAK JANDAKOA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra: Iraultza eta Zigor neba-arreba bikien bigarren abentura. Oraingoan Ondarratera iritsi den mutazio baten atzean ezkutatzen dena ikertzeari ekingo diot. Zer gertatzen da katuak mihia jan digunean?

IDAZLEA: ASEL LUZARRAGA

Holako saioak egiten hasi nintzenetik literaturak eman dizkidan esperientziarik emankorrenak bizitzeko aukera izan dut, batez ere, esan gabe doa, ikasleek liburua irakurrita izan dutenean eta saioa hartu-emana izan denean. Halakoetan, liburuen gaineko alde ezkutu batzuk ez ezik, nire esperientziak partekatzea ere dut gustuko, eta ikasleek kontatzeko dituztenak entzutea are gustukoagoa. Saiorik sai zer hobetu ere badago, zalantza barik, eta horretarako ezinbestekoa da irakasleen eta ikasleen iritziak jasotzea. Gozatzeko ez bada, zertarako da literatura?

Izenburua: IRULEAK
Argitaletxea: TXALAPARTA

Deskribapen laburra:
Hiru dira iruleak: Kloto, Lakesis eta Atropos. Beldurgarriak, boteretsuak eta independenteak. Gizakien patuaren jabe eta gidari... baina, hargatik, Lurrean aspaldi ahaztuak. Asper-asper eginda, Klotok jolas tentagarri bat proposatu die ahizpei: ehuntzeko hariak hartu, eta lurtar baten bizitzan eragingo dute. Lurrean, Dickensen Eguberri kanta ezagunean bezala, Mar gazteak hiru fantasmaren bisita izango du. Ez da Gabon gaua, ordea, eta bisitariek ez diote alegiazko irakaspenik eman nahi; behinola bizi izan ziren emakume esanguratsuak dira: Margaret Fuller,Margarita Nafarroakoa eta Inés Joyes y Blake. Emakume beldurgarriak, boteretsuak eta independenteak, inondik inora ahaztu behar ez genituzkeenak.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Iruleak -Pasartea-

IDAZLEA: GARAZI ALBIZUA

Santurtziarra naiz, idazlea eta feminista.
Irakurleak aurrez aurre ezagutzea plazerra da.
Nire lanaren aurkezpena egin ostean, ikasleek dituzten galderak erantzutea gustoko dut, gainera, irakurketa lantzeko zenbait proposamen bidaltzen dizkiot irakasleari, saioaren nondik norakoak aldez aurretik prestatzeko.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Bi abentura eta amodio bat! -Pasartea-

Aurreko egunetan neska indiarra eta biok elkar neurtzen ibili ginen, hitz solteak esaten, keinuz lagunduta. Noizean behin irribarreren batek egiten zigun ihes. Ekaitz osteko ostarte bezalakoak ziren haren irribarreak. Politasuna areagotu egiten zioten. Polita baitzen, alajaina! Ilea azabatxe kolorekoa zeukan; larruazala, kobre ilunaren kolorekoa; ez zen garaia ezta txikia ere, baina liraina eta indartsua itxuraz. Aurpegia biribil samarra zuen; begi-niniak, ilearen kolorekoak; sudurra, zapal samarra baina graziosa; ahoa, txikia, eta ezpainak, marrubi kolorekoak. Goiz Izar zuen izena.

Izenburua: BI ABENTURA ETA AMODIO BAT

Argitaletxea: ALAI

Deskribapen laburra: Bi narrazio daude liburu honetan, protagonista bera dutela. Lehena Euskal Herrian gertatzen da, eta protagonista bidelapur batzuen atzetik ibiliko da, neska eta kutun baten bila. Bigarrena Kanadan, eta honetan protagonistak kontatzen ditu han bizi izandako gorabeherak. Izan ere, Ternuara Joan da arrantzara eta neska indigena batez maiteminduko da. Maitasun istorioa gorabeheratsua izango da, gorroto, mendeku eta indarkeriaz betea. (Lan hau Euskadi Sarirako finalisten artean dago)

IDAZLEA: MIGUEL ANGEL MINTEGI

Gustuko dut nire liburuak eta esperientziak irakurleekin konpartitu, gertutik ezagutu eta haien iritziak jaso. Saioaren sarreran neure buruaren aurkezpena egin ohi dut, eta jarraian hitza ematen diet ikasleei, neurri batean eurak ere protagonistak izan daitezen.Nire eleberrietan, bestalde, pertsonaia nagusiak gazte dira, gazte arruntak,super-heroiak baztertuak ditut. Oraingoz bederen. Horrez gainera, intriga eta abentura izaten dira nagusi.

Izenburua: 7G Udalekuak
Argitaletxea: Erein
Deskribapen laburra:
LIBURU HAU DESBERDINA DA.
Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago.
ZU zara protagonista.
Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu.
Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi.
Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu.
Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake…
eta heriotza ere bai!
Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu, zure istorioaren ibilbidea aldatu dezakezu.
Murgildu zaitez 7G udalekuen zirraran… Agian lagun berriak egingo dituzu, maitemindu egingo zara, agian zure bizitzako oporrik onenak izango dira; edo agian ez, agian ezingo duzu etxera itzuli, agian ezingo duzu inoiz han egon zinenik kontatu.
Ausartuko zara?
Gertatzen dena gertatzen dela ere, ZORTE ON!

EZAGUTU ELEBERRIA!
7G -Pasartea-

(...)
Buruko min apur bat daukazu. Begiak berriro ere igurtzi eta ingurua behatzen duzu. Gidariak 7G egoitzan utzi zaituela esan dizun arren, han ez dago egoitzarik. Zuhaitzez inguratutako soilgune batean zaude, hartxintxar bide bat eskuinean eta beste bat ezkerrean; gainerakoan, zuhaitzak, zuhaitzak eta zuhaitz gehiago. Zeru hutsari begiratzen diozu, urdin mintzo da.
Eta orain zer?
Autoa ezkerreko bidetik joan dela uste duzu, baina ez zaude batere ziur. Lo-eragileen efektua izango da. Bi bideetara hurbiltzen zara gurpilek utzitako arrastoen bila. Ez dizu askorako balio: bietan daude pneumatiko arrastoak.
Zer bide hartuko duzu?
A) EZKERREKO bidea hartu nahi baduzu, joan zaitez 37. orrialdera.
B) ESKUINEKO bidea hartu nahi baduzu, joan zaitez 92. orrialdera.

(...)

IDAZLEA: NEREA LOIOLA

Maite dut literatura eta maite dut idaztea. Izugarrizko plazera da nire pasioa ikasle eta irakasleekin konpartitu ahal izatea.
Irakaslea naiz lanbidez eta hiru ume ederren ama ere bai, horrek asko laguntzen dit egindako literatur saioetan ikasleengana gerturatzen eta hauekin konektatzen.
Eskolara joan aurretik irakaslearekin hitz egitea gustatzen zait, saioaren nondik norakoak azaldu eta xehetasunak adosteko.



EZAGUTU ELEBERRIA!
Itsasoaren atea -Pasartea-

(...)
Ama hil zen gauean, Elorak tximista more bat begiztatu zuen Saint Étienne ospitaleko leihotik. Istantean ulertu zuen eztanda hura amaren sugarra zela, mundutik askatu berri. Eta aldi berean, marrazki bat eratu zen berez-berez neguko hotzak ganduturiko kristalean: bihotz bat.
Klararen mezua zen, dudarik ez, bere maitasunaren ikurra, baina baita berak maíz errepikatzen zuen esakune batena ere: “Izan bihotz!”.
Esaten zuen egunero zela kementsuak izateko eguna eta ausardia bihotzean jaio zela.
(...)

Izenburua: ITSASOAREN ATEA

Argitaletxea: ELKAR

Deskribapen laburra:
1870eko negua da. Aitak bapore batean utzi du Elora Duval, Ubarroien Uhartera bidean. Hamahiru urteko neskatxari ama hil zaio eta bizimodu berri bati ekin beharko dio. Lanean hasiko da Galantenea jauregiko Ariane zaintzen. Baina ez Elora, ez Ariane, ez dira neska arruntak: besteek sumatzen ez dituzten mezuak hautematen dituztenez, kondaira tragiko baten korapiloa asmatuko dute. Zer Itsasoaren Atea? Itsasoak ba ote du aterik?

IDAZLEA: MIREN AGUR MEABE

Ume nahiz gaztetxoentzat idazten dut, bai prosa, bai poesia, batzuetan bi generoak obra berean nahasita.
Euskadi sariarekin nabarmendu dituzte nire hiru lan hauek: Itsaslabarreko etxea (2002), Urtebete itsasargian (2006) eta Errepidea (2010).
Literatura eta ezagutza-liburuak ere itzultzen ditut euskarara.
Urte asko eta asko daramatzat ikastetxeetan saioak eginez. Saioen helburu nagusia hauxe da niretzat: irakurleekin elkarrizketa ahalik eta mamitsuena izatea, bai irakurritako lanaren inguruan, bai idazlangintzaren inguruan, haien galderak abiapuntutzat hartuta. Nire hasieretan irakaslea izan nintzenez, pizgarria gertatzen zait aurrez aurreko harremana informazioa aberasteko.



EZAGUTU ELEBERRIA!

Labarreko itsasargia -Pasartea-

(...)
Ostiral bateko arratsaldeko hirurak ziren, siesta garaia. Koloretako etxetxoetatik zurrunga luzeak baino ez ziren heltzen, ametsen koru nahasia bezain eroa. Eta Aniak, osaba Giusepperen atzetik izerditan, liburu bateko protagonsta bezala sentitu zuen bere burua. Ania lurralde miresgarrian, katu eta guzti. Espero zuen bakarra zen istorio berritu honetan erregina buruhandi eta zitalik ez agertzea. Ez zuen bere bizitzan drama gehiagorik nahi.
(...)

Izenburua: LABARREKO ITSASARGIA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra:
Ania itsasargi batean bizi den bere osabaren etxera doa uda pasatzera. Han itsasoarekin lotutako misterio zahar baten barruan murgilduta aurkituko du bere burua.

IDAZLEA: OIHANE FERNANDEZ

Haur eta gazte literaturako irakurleak aurrez aurre ezagutzeko aukera eman dit, eta luxua deritzot. Eskoletan burututako topaketetan liburua noiz, nola eta zergatik idatzi nuen azaltzen diet, beste hainbat bitxikerirekin batera. Topaketa hauek interesgarriak izateaz gain, biziak zein dinamikoak izan daitezen saiazten naiz. Eskolara joan aurretik irakaslearekin hitz egitea gustatzen zait, saioaren nondik norakoak azaldu eta xehetasunak adosteko.



Izenburua: OIER

Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra:

Mundura begira bizi da Oier, baina ama gaixotzen zaionean bere barrura begiratu beharko du halabeharrez. Ustez sendoak ziren ideietan arrakala txiki batzuk irekiko zaizkio, eta emozioek dardarka jarriko dute bere izateko moduaren eraikuntza osoa.

EZAGUTU ELEBERRIA!

OIER -Pasartea-

–Urtebeteko bizia eman didate.
Plausta bota du amak, aurrean inor ez balego bezala, inori zuzendu ez balitzaio bezala. Baina hantxe daude, komedoreko mahai handiko alde banatan, aita, ama, anaia eta bera, Oier.
(…)
Oier egoera sinetsi ezinda. Azkenean, berba egin du:
–Ama –hitz bakarra atera zaio, baxu, eta sentitu egin du eztarrian nola trabatu zaizkion beste hainbat.
–Bai, Oier? –esan dio amak; kariñoz, baina ikaraz ere bai: bigarren semeak ere ihes egingo ote dion ikara da, baina baita bigarrengo honi erantzun egin beharko diolako ere.
–Zer daukazu? –lortu du itauntzea Oierrek.
Amak ezpainak elkarren kontra zanpatu ditu. Ondoren, senarrari begiratu dio. Ostera ere seme txikiari. Begiak gogor itxi, malko gehiago, begiak ongi ireki:
–Leuzemia.

IDAZLEA: ALAINE AGIRRE

Alaine Agirre 1990ean jaio zen Bermeon, baina Gipuzkoan bizi da egun. Gazte hasi zen idazten, eta egungo euskal literaturako ahots pertsonal eta interesgarrienetako bat bihurtu da urte gutxitan, kritikaren nahiz irakurleen onespena lortu dituena, bere prosaren erritmo, indar eta pasioari esker.



EZAGUTU ELEBERRIA!

Ezer ez da dirudiena -Pasartea-

Van Gogh margolari ospetsuaren ezkerreko belarria ikusgai jarri duen erakusketa; museoko lorezainak lapurturiko grabatuaren ezkutalekuan agertutako hilotzaren kasua; Gabonetako jaiotzak museora garraiatzean, bi tarantulek sorturiko nahasmena eta deskalabrua; koadro baten aurrean musean jolasean aurkitu eta ospitaleratutako aitonaren istorioa; mutil-lagunaren hitzordura joanda grafitigile talde batekin eta guardia zibilarekin endredatzen den neskaren abenturak eta desbenturak… Artea gai eta giro, zortzi narrazio hauetako narratzaileak eta protagonistek ertz ezberdinetatik arakatuz artearen paisaia fisiko eta emozionalak bistaratuko dituzte.

Izenburua: EZER EZ DA DIRUDIENA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra:

Artean ezer ez da dirudiena eta (ez) dirudien horrekin jolasten den gisa artista jolastu da idazlea, fikzioa eta errealitatearen arteko jolasa eta ariketa literarioa uztartuz, margolari baten gisa, paleta koloretsua eskaintzeko irakurleari. Artearen eta sormenaren paisaiak zabalak eta kolore anitzak direlako, bertan bizi diren pertsonaiak bezala

IDAZLEA: MARIBEL AIERTZA

Asko gozatzen eta ikasten dut ikastetxeetan. Nire liburuek gai eta balore asko lantzeko aukera eskaintzen dutela esaten didate irakasleek. Pozik entzuten da hori, ze horixe da eskaini nahi dudana, entretenimendua eta gogoeta. Saioetan ikasleen jakin-mina xaxatzen eta elikatzen saiatzen naiz haien galderak erantzunez, liburuen eta sortze prozesuaren jakingarriak eta bitxikeriak azalduz, irudiekin eta ariketa jolasen batekin lagunduta hartu-emana atsegina eta aberatsa gerta dadin guztiontzat. Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna kutsatu nahian beti.



Izenburua: LARUNBATEAN BUKOWSKIN

Argitaletxea: elkar

Deskribapen laburra:

EZAGUTU ELEBERRIA!

Larunbatean Bukowkin-Pasartea-

Xatok eskua altxatu du eta tutorea deskolokatuta geratu da, mutiko tximaluzeak bere arau-jarioa eten duelako.
–Zer? Dudaren bat? –galdetu du irakasleak.
–Zero duda. Komunera joan behar dut.
Inguruan batzuek barre egin dute. Baina Albertori ez dio graziarik egin:
–Ez da posible. Bost minutu gelan eta dagoeneko pixagura daukazu?
–Ez, añordatzera noa.
Horrelaxe bota du Xatok erantzun definitiboa. Pinua landatzera joan behar duela eta kitto. Ateraldi bikaina. Orduan bai, inguruko denek egin dute barre, algaraka. Alberto tutorea ozpinduta geratu da. Mutikoaren azken burutazioa:

Argi ibili, Xato. Tutoreak matrikula apuntatu dizu lehenengo egunean!

IDAZLEA: JOHN ANDUEZA

John Andueza naiz. Kazetaria. Telebistako aurkezle, gidoilari eta zuzendaria. Zinegilea. Eta azken urteetan idazle gisa ari naiz. Zortzi nobela publikatu ditut, horietako gehienak bereziki irakurle gazteei eskainitakoak. Gustu handiz konpartituko dut nire jarduera literarioa eurekin, ea euskal kulturaren harra pizteko balio duen.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Maiatasun Sua -Pasartea-

Izenburua:MAITASUN SUA

Argitaletxea: Ekin

Deskribapen laburra:

Juze eta Samuel Erdi Aroko judu euskaldunak dira, eta elkarrekin maitemintzean, ezustean zigor latza etorriko zaie gainera. Gay izaeraren inguruko gogoeta eginez, gaur egungo eta Erdi Aroko egoerak azaltzen dira abentura liburu honetan.

IDAZLEA: AITOR ARANA

Aitor Arana dut izena. Nire laneko zereginik garrantzitsuenetako bat ikastetxeetan neska-mutilekin saioak egitea da. Hori gabe, nire liburuetako asko ez ziren sortuko. Haiei idazleon bizimoduaz hitz egiteaz gain, liburuen nondik-norakoen berri ere ematea gustatzen zait. Eta, batez ere, haien galderak erantzutea.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Miren nunca mais -Pasartea-

“Galdu nintzen lehen aldia jaioberritan izan zen. Beno, egokiagoa litzateke galdu egin nindutela esatea. Denbora laburrez, noski, ni ez naiz oroitzen, normala denez, baina amak askotan kontatu izan du”.

Izenburua:MIREN NUNCA MAIS

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra: Miren galdu egin da Santiagon, egun osoa kaleetan bakarrik… zer egingo zenuke?

IDAZLEA: PAKO ARISTI

Haur eta gazte literaturako irakurleak aurrez aurre ezagutzeko aukera eman dit, eta luxua deritzot. Liburua noiz, nola eta zergatik idatzi nuen azaltzen diet hasieran, galderak erantzun eta beste idazle batzuen nire pasarte gustukoenak partekatzen ditut haiekin, baita kantuen hitzak ere. Eskolara joan aurretik irakaslearekin hitz egitea gustatzen zait, saioaren nondik norakoak azaldu eta xehetasunak adosteko.



EZAGUTU ELEBERRIA!

Trumoiaren alaba -Pasartea-

Leku bakarra zegoen etxeko txikiak eramaten ez nituena: Iboih-ko hondartzaren aurrean dagoen irla ñimiñoa, Rubiah. Gurasoek txikitatik debekatu zidaten hara hurreratzea, toki madarikatua zen eta. Zaharrek ziotenez, Iboih eta Rubiah benetako gizon-emakumeak izan ziren, gazte-bikote maitemindua, baina egun batean elkarrekin haserretu eta neska uhartetxo horretara joan zen bizitzera. Joan eta inoiz itzuli ez. Hantxe hil zen, bakar-bakarrik, haren gorpua ez zuten topatu, baina haren mamua hantxe gelditu omen zen, eta edozer egiteko gauza omen zen bisitariak uxatzeko. Urte batzuk geroago, adibidez, zoroetxe bat jarri zuten Rubiah-n, baina sute bat gertatu zen eta ero guzti-guztiak erre ziren. Eta handik gutxira, laurehun bidaiari zeramatzan ferry bat irlatxotik hurbilegi igaro zenean, bat-bateko enbata sortu, ontzia hondoratu eta ia bidaiari guztiak ito ziren.

Izenburua:TRUMOIAREN ALABA

Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra:
Sumatran kokatutako abentura-nobela honetan, neska nerabe bat, Batari, eta bere neba txikia, Kusuma, bakarrik geratuko dira munduan tsunami baten ondorioz, eta ibilbide luzea egin beharko dute uhartean zehar ahaideren baten bila.
Ustekabez eta magiaz zipriztindutako istorio honetan, mila abentura eta arrisku biziko dituzte neba-arrebok eta hainbat adiskide egingo dituzte, helburua lortzen lagunduko dietenak. Emakumeen egoera, naturaren suntsitzea, turismoaren eragina, erlijioen arteko lehiak, umeen trafikoa, mafien lana... dira azaltzen diren gaietako batzuk. Eta, bide batez, munduaren bazter ezezagun hori pixka bat ezagutzen lagunduko digu.

IDAZLEA: JON ARRETXE

Jon Arretxe Perez euskal idazlea da. Bere herrian egin zituen lehen ikasketak, eta unibertsitatean matrikulatu zen Deustuko Filologia Fakultatean. Lizentzia lortu zuen, bai eta doktore gradua ere, Basauriko euskara tesiari esker, non Basauriko azken belaunaldi euskaldun zaharraren hizkera idatzia batu baitzuen

EZAGUTU ELEBERRIA!

Zerak -Pasartea-

Nik lagun ezkutuak erabiltzen ditut. Ez Gabonetakoak.
Gabonetako lagun ezkutuetan jasotzaileak ez daki nork egin dion oparia, baina opari-egileak bai nori egin behar dion.
Nire lagun ezkutuak bestelakoak dira. Agerian ez dabiltzalako deitzen diet ezkutuko, baina haien bulkada benetakoa da. Fantasiaz izendatu ditut, baina muin organikoa daukate. Egiazkoak dira. Biziak dira.
Nire lagun ezkutukoak nire barruko indarrak dira.
Susmoak, ikarak, galerak, nahiak…
Zerak.

Izenburua: ZERAK

Argitaletxea: denonartean

Deskribapen laburra:

Fantasiari beldurra diogula zioen Bruno Bettelheimek; esanahi esplizituetara jotzeko arriskuaz ohartarazten zigun: «Literaturak ez dio begiratzen gertaerari berari, baizik eta gertatzearen desioari».

Literaturak eskaintzen dizkigun fantasia eta pentsamendu magikoa erabili ditut, bada, barruko zerak azalerazteko.

IDAZLEA: YOLANDA ARRIETA

Irakasle ikasketak egin zituen, eta baita Antzerkia eta Kultur eta Gizarte Antropologia ere. Idazketa sortzailearen inguruko tailerrak gidatzeaz gain, Literaturara hurbiltzeko saioak egi-ten ditu haur txikien guraso eta irakasleekin. Hainbat liburu argitaratu ditu Haur eta Gazte literaturan zein helduenean.Literatura ardatz duten zenbait produktu ere sortu ditu: testu liburuetako Literatura atala, egutegi olgetariak, postalak, margotzeko liburuak, album familiarra... Prentsan ere aritu izan da azken urteotan.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Osaba Joxeren sotoko kutxan -Pasartea-

Egunsenti eta iluntze zoragarri eta gaiztoen ondorioz makina bat arrisku jasan ondoren, itsasontziak amarratzeko garaia iritsi zen, azkenean. Koltxoiak eta poltsa bizkarrean zituztelarik abiatu ziren marinel guztiak etxeruntz negu hotzaren hatzaparretatik ihesi. Itsasoa biluzik geratu zen.

Izenburua: OSOBA JOXEREN SOTOKO KUTXAN

Argitaletxea: Dakit

Deskribapen laburra:

Orioko udalak moila eraberritzeko lanekin hasi nahi duela eta Mirenen familiak moila gainean duen sotoa langileen lanerako lanabesak gordetzeko erabili nahi du. Familiarentzat aitzakia ezin hobea izango da aurrekoek gordetako gauzetan ordena ipintzeko eta balio ez duen guztia sakarretara ateratzeko. Sotoa txukuntzen hasi direnean, traste zaharren artean egurrezko aintzinako kutxa eder bat topatu du Mirenek. Kontu handiz zabaldu ondoren paperez beteta dagoela ikusi du. Dirudienez amatxi Jonek bere irakasle garaian egin eta jasotakoak dira. Bere familiaren historia ezagutzeko aukera izango duela otu zaio Mireni

IDAZLEA: MARISA ARRUABARRENA

Gure gazteak aurrean ditudalarik nire nobelaren nondik norakoak kontatzeak betetzen nau. Sormena, esateko dudana eta nire ametsak egia bihurtzen ari direla esaten diedanean gustura entzuten didate. Oraingoz nire ikasleekin bakarrik aritu naiz Osaba Joxeren sotoko kutxaz, baina benetan gustatuko litzaidake beste ikastetxeetan ere jardutea.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Hitzen Ahairea-Pasartea-

Liburu honetan, idazleen eta musikarien arteko elkarreraginetik sortutako kantagintzari buruzko gogoetak irakurriko dituzu. Halandaze, aipatuko diren kantu ia guztietako testuak idazleek sortuak izanen dira. Gure kantagintza hori baino askoz zabalagoa da baina ni literatura eta musika uztartzen dituenera mugatu naiz. Azalduko dut zergatik

Izenburua: HITZEN AHAIREA

Argitaletxea: Susa

Deskribapen laburra: Idazle eta musikarien elkarreraginetik sortutako kantagintza, Euskal Herriaren historia kantagintzaren bitartez, euskarazko kantagintzaren eragin soziologiko eta soziolinguistikoa, euskarazko kantagintzak euskaldunon identitatearen eraikuntzan izan duen eragina eta garapena

IDAZLEA: GOTZON BARANDIARAN

Gotzon Barandiaran euskal idazle eta kulturgilea da. Literaturan egindako lanaz gain, besteak beste musikaren arloan Bihotz Bakartien Klubaren eta Katamalo taldearen partaidea izan da.

OHARRA: Saioetan Rafa Rueda musikariak zuzenean jotzen ditu gotzonek iruzkindutako kantak



EZAGUTU ELEBERRIA!

Elurpean -Pasartea-

—Ez, ez, ez egizu tirorik jo, biok hilgo gara-eta.
Ingelesez ere erregutu dio tirorik ez egiteko, elur-jausia eragin bailezake. Hala ere, beste tiro bat entzun da. Badirudi lehena gorantz-edo, ikaratzeko bota duela; bigarrena, aldiz, hurbil pasatzen sumatu du inspektoreak eta horrek urratsa bizkorrarazi dio. Eta orduan krakada ozen bat entzun da han goian, nonbait, mendia arrakalatu edo erdibitu egin balitz bezalako trumoi-hots sikua. Baina ez da trumoi izan, baizik eta magaleko elurtza guztia zorutik askatu eta aldapa behera orroka abanta bizian amildurik datorrela, bidean aurki lezakeen oro azpian hartzeko moduan.

Izenburua: ELURPEAN

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra:
Neguaren atarian Aranbeltza goi-mendietako herrixkara dator Gorospe inspektorea, oporraldi atsegina eta lasaia igarotzeko asmotan. Elur-gosea du, neguko elurteen babes isilean aurkitu nahi du bakea. Baina amesten duen elur horrek berak buruhausteak besterik ez dio ekarriko laster. Ekintza lazgarri bezain korapilatsuek zeharo aztoratuko dute Aranbeltzako bakea, atsedenaldi bila etorri den inspektorea bere gogoaren aurka ezinbestean lanean jarraraziko dutenak.

IDAZLEA: JOKIN DE PEDRO

Bilbon jaioa, 1955ean. Euskal Filologia Lizentziaturako ikasketak egin eta harrezkero beti irakaskuntzan jarduna, lehenik Bilbon eta gero Getxoko Aixerrota Bigarren Hezkuntzako Ikastetxean. Euskal Hizkuntza eta Literaturako testuliburugintzan zenbait urtez jardun du; baita material didaktiko askotarikoa atontzen ere: Gramatika Praktikoa, Testuak aztertzen, Ahozko poesia...

Fikzioaren munduan Lau animalia ipuin kontari ipuin sortatxoarekin abiaturik, hurrengo emaitzak polizi eleberriaren (Irurac bat, Etsai gordea, Elurpean) eta izuzko istorioen bidetik (Izu-izua) joan dira. Geroago, Joana eleberri laburra (Ramiro Pinilla saria 2019an) eta Gazteluondo eleberri historikoa eman ditu. Antzerki arloan, berriz, hauek ditu taularatuak eta argitara emanak: Plasentzia 1577, Anton Garaiko kortsarioaren historia eta Butroe zelangoa dan orok dakie.

Izenburua: BIZIRIK NAUELAKO

Argitaletxea: Beta

Deskribapen laburra:

Olerki liburu erraza, sentimenduz osatuta. Ikasleek irakurtzeko erraza, hausnarketarako bidea eskaintzen diena. Beraien arazoetatik hurbila eta esanguratsua.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Bizirik nauelako -Pasartea-

Ez etsi

Arnasa duzulako

Sentitzen duzulako

Aukerak dituzulako

Ez etsi

Maite zaitudalako

Maite duzulako

Izan zarelako

Ez etsi

Mendiak daudelako

Itsasoa dagoelako

Bizia dagoelako

Ez etsi

Ate bat itxi

Eta beste bat irekitzen delako
(...)

IDAZLEA: AINHOA ELORDI

Nahiz eta olerkigintzan bizi osoa eman, lehen liburua *Nire bizipenen olerki bilduma* 2018ko uztailean plazaratu zen. Magisteritzako ikasketak (atzerriko hizkuntzan), beraz irakaskuntza da bere ogibidea. Itzultzaile lanetan ere aritu izan da "Toronto Star" egunkarirako.

Hitza egunkarian partekatzen ditu bere olerkiak, baita kolaborazioak mundu honetan eskakizunen arabera. 2020an Bizirik nagoelako liburua argitaratu du Beta argitaletxean.

Izenburua: SARA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra: Sara, Jokin, Alaitz, Joseba, Maitane…15 urte inguruko gazteak dira, ikastetxe berean dabiltza eta hortik kanpo ere hainbat kontutan nahastuko dira. Batzuk barregarriak vaina beste asko beldurgarriak. Irakurtzen hasi eta jarraitzeko irrika pizten duen istorioa, zer gertatuko den jakin nahirik.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Sara -Pasartea-

Esnatu ondoko igande hartako lehenengo segundo haietan, aspiragailuaren soinu jasanezinari egotzi zion Sarak buruko min izugarri hura. Berehala ohartu zen, ordea, aspiragailuak ez zuela bere ondoezaren errurik, eta are okerrago sentitu zen oroitzen zituen gaueko argazki bakanak gogora etortzen hasi zitzaizkionean, diapositiben aurkezpen modura. Ezin zitekeen izan! Jokinekin egon zen. Jokin, bere umetako laguna. Ikastexeko frikien taldekoa.

Asko edan zuten gau hartan eta, makina bat plastikozko edalontzi hustu ondoren, Alaitz bere lagunik onenarekin izandako elkarrizketa etorri zitzaion gogora.

−Hori da ipurdi polita gure Jokintxurena!

−Benetan ari zara?

−Ez du inork jakingo. Gauza labur bat. Beroalditxo bat baino ez da.

Alaitzek baino ez bazekien, ez zuen uste arazorik izango zuenik. Azken batean, bere lagunik onena zen. Ez zion inori kontatuko. Ala bai?

Bere hurrengo diapositiba gogorragoa izan zen: Jokinekin izandako enkontrua. Bere gainean muxuka, gerria aurrera eta atzera, mutilaren aurpegia...

Otsaileko igande hartako lehenengo hitza atera zen Sararen eztarri lehorretik:

−Jodeeeeeer!

IDAZLEA: JABI ELORTZA

Euskal filologian lizentziaduna. Zamudioko Bizkaia ikastetxean D.B.H.-ko euskara irakasle da egun. Bi nobela argitaratu ditu orain arte Elkar argitaletxeko gazte literatura Taupadak bilduman: Sara (2017) eta Kinito egunak (2018)



EZAGUTU ELEBERRIA!

Valerium tremens eta traganarruak -Pasartea-

Izenburua: VALERIUM TREMENS ETA TRAGANARRUAK

Argitaletxea:

Deskribapen laburra:
Hondartzan hilotz bat azaldu denetik, herriko marinel zaharrek itsasoko izaki ahaztuei buruzko kondairak baino ez dituzte guztiek ahoan. Eskolan ordea, Valerium Tremens amerikar etorri berria da denen hizketagai. Sara, Martin eta hirurek altxorraren bila jolasean Azken Portuan barneratzen direnean, arriskuan ikusiko dute euren burua. Traganarruei ihesi, ustekabeko sekretuak topatuko dituzte.

IDAZLEA: ETXEBERRIAK BROTHERS

Martin eta Xabier Etxeberria anaia bikiak gara. Bakarka ere baditugu liburuak baina, egia esan, elkarrekin idatzi ditugu argitaratuta ditugun liburu gehienak: helduentzako nobelak, haur eta gazte literatura eta, azkenaldian, baita komikiak ere.



Izenburua: AHOTS ISILDUAREN BAHIKETA

Argitaletxea: Ibaizabal
Deskribapen laburra:

Antena bat eta furgoneta zuri bat, horiexek Martin eta Edurnek dituzten datu guztiak Asierren bahiketa argitzeko. Nortzuek bahitu dute? Zergatik? Zertarako? Gutxien espero duten eremuetan sartuko dira harik eta ahots isildua topatu arte.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Ahots isilduaren bahiketa **-**Pasartea-

Hamabost egun igaroak ziren Asier desagertu zenetik eta inor ez zen haiekin harremanetan jari umearen berri emateko edo diru ordainen bat eskatzeko. Asierren argazkia zabaldu zuten Gasteizko lekurik garrantzitsuenetan: tren eta autobus geltokietan, zinemetan, udaletxean eta gizarte etxeetan, tabernetan, unibertsitatean… Hala ere, inork ez uzen deitu haurrari buruzko daturik emateko.
Herrian ere umea bilatzeko boluntario taldeak eratu ziren, inguruetan egongo zelakoan. Hamabost egun haietan, egunero, Mendiguren ondoko paraje eta bazter guztiak arakatu zituzten: mendixkak et soroak, industriaguneko eraikinak eta aireportuko tokiak, hur egiten ari zen hipermerkatuaren lan eremuak, kamioilariek egunero betetzen zituzten tabernak… Alferrik.

Martinek ez zien zerabilen hipotesia azaldu Andres eta Klarari, frogarik ez zeukalako eta oso zaila begitantzen zitzaiolako besterik gabe susmo hura zabaltzea. Nahiago zuen isilean eraman, datuak bilatzen segitu, susmoa indartu edo guztiz baztertuko zuten aztarnen bila jarraitu.
Amaierekin hitz egin nahi zuen, furgonetaren gainean datu gehiago lortzen saiatu, umea gehiegi behartu barik

IDAZLEA: IÑAKI FRIERA

Iñaki Friera naiz. Barakaldon jaio nintzen eta Getxon bizi naiz. Idazlea naiz, bai, baina irakurlea naizela esatea gustatzen zait, irakurtzeak ekarri ninduen eta idazleen mundu honetara: irakurtzea, lehendabizi; lagun idazle bati "laguntzea", gero, eta, azkenik, ni neu ere idazle izatea. Bueno, eta orain aukera ederra izaten dut urtero nire bidaia horren nondik-norakoak zuekin, irakurleekin, konpartitzeko: zergatik naizen idazle, zergatik irakurri duzun liburua, nondik ideia, zer kostatu zitzaidan gehiago… Tira, hamaika konturen berri emateko baliatzen ditut saioak betiere irakurleek, haurrek, aldez aurretik prestatu dituzten galderen eskutik.



ANTZERKIA

Esketxak

Literatura dramatikoa, genero gisa ikasleengandik gertuen egon daitekeen genero literarioa da. Antzerkia irakurtzea beharrezkoa da antzerkia egin ahal izateko. Antzerki idazketa gainera ahozkotasunetik gertuen dagoen literatura da, eta batez ere, irakurketarako zailtasuna duten ikasleentzat gainera literatura oso baliogarria izan daiteke.

Izenburua: ESKETXAK
Argitaletxea: Deskribapen laburra:

ESKETXAK antzezlan laburrak dira, eskolan, lagunartean, taldeka egiteko modukoak. Liburu honetan lau aurkituko dituzue: Medikuaren kontsultan, Arrantzan, Txoua eta Propultsio aerodinamikoaren kanporaketa.

Antzezlan hauek bizi egin nahi dute eta antzeztuak izateko zain daude.Talde-lanean ondo pasatzeko eta ikusleei barrea eginarazteko tresnak dira. Izan ere, testu hauek zuen lokomotora martxan jarri eta jendea bidaia xelebre batean eramateko trenbideak dira. Zenbait egoeratan gertatzen diren katramilak proposatzen dizkizuet. Hortik aurrera, ordea, zuena da zeregina, zuena lana: pertsonaiak sortu, jantziak eta pelukak bilatu, agertokia apaindu, entsaioak antolatu, eta batez ere... antzeztu! Garbi izan gogoa dela, jokatzeko gogoa, antzerkia egiteko behar den gauzarik garrantzitsuena. Atera beraz barruan duzuen antzezle porrokatu hori, eta ekin antzezteari!

IDAZLEA: AIZPEA GOENAGA

Aktore, zinema-zuzendari eta idazlea da. Antzerki-, zinema- eta telebista-munduan ibilbide luzea egin du, antzezpenean ez ezik, baita gidoigile eta antzerki-idazle gisa ere.



EZAGUTU ELEBERRIA!

Azken dantza NeW York-en -Pasartea-

Gasteiz, Bilbo eta New York dira hamahiru urteko Ingeren bizitzan pausaleku izan diren hiriak. Gasteizen jaio zen, Bilbora aldatu behar izan du familiarekin aita hil eta gero, eta New Yorken bere burua ezagutu eta aurrenekoz maiteminduko da.
Dantza lehiaketa irabazi ondoren joango da Inge New Yorkera ikastaro bat egitera. Maleta ilusioz gainezka eramateaz gain, amak bere liburuxka bat eramaten utziko dio. Irakurriz ezagutuko du txikitatik ezkutatu izan dioten aita-amaren bizitzako pasarterik gogorrenetako bat: gaztetan, amak poliziak atxilotu eta torturatu egin zuen.
Seme-alaben arteko harremanak, lehenengo maiteminak, gaztetako ametsak eta gizarte gatazkak jomugan jartzen dituen istorio eder eta zirraragarria

Izenburua: AZKEN DANTZA NEW YORK-EN

Argitaletxea:
Deskribapen laburra:
Gasteiz, Bilbo eta New York dira hamahiru urteko Ingeren bizitzan pausaleku izan diren hiriak. Gasteizen jaio zen, Bilbora aldatu behar izan du familiarekin aita hil eta gero, eta New Yorken bere burua ezagutu eta aurrenekoz maiteminduko da.

Dantza lehiaketa irabazi ondoren joango da Inge New Yorkera ikastaro bat egitera. Maleta ilusioz gainezka eramateaz gain, amak bere liburuxka bat eramaten utziko dio. Irakurriz ezagutuko du txikitatik ezkutatu izan dioten aita-amaren bizitzako pasarterik gogorrenetako bat: gaztetan, amak poliziak atxilotu eta torturatu egin zuen.

Seme-alaben arteko harremanak, lehenengo maiteminak, gaztetako ametsak eta gizarte gatazkak jomugan jartzen dituen istorio eder eta zirraragarria.

IDAZLEA: LUR GALLASTEGI

Lur Gallastegi Zendegi bizkaitar idazlea da, itzulpengintzan lizentziatua eta ingeleseko irakaslea ogibidez. 2018an Mikel Zarate Haur Literaturako Saria irabazi zuen Saharako itsasoa eleberriarekin.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Connemara gure bihotzean -Pasartea-

Baina eskutitz haien azpian, apropos ezkutaturik, etiketa urdindun disket bat aurkitu zuen Txemak. Bihotza galapaka hasi zitzaion, tripetatik ahoraino hedatutako bero batekin batera. Davy Spillaneren doinuak etengabean oihukatu zuen gela hura ere Irlanda zela, eta bazirudien gaita eta uilleann pipe guztiak askoz ere indartsuago jotzen hasi zirela, Txemak etiketa gainean “Eire” irakurri zuenean.
Ordenagailura joan zen zuzenean. Arraroena zen disket hura beste guztiekin batera ez aurkitzea, eskutitzez beteriko kutxa batean baino. Txemak ezagutzen zituen Eiderrek Irlandan bizitako guztiak, nola herrialde guztia ibili zuen eta aterpetxeetan lo egiten zuen, eta bertako pub zaharretan izan zituen mozkorraldi eta elkarrizketa luzeak, edota hango kondairak eta paisaiaren berezitasunak zenbateraino maite zituen. Baina disket hartaz ezer ere ez zekien.
Pantailaren argitasunean zortzi artxiboko zerrenda azaldu zitzaion. Guztietatik lehenbizikoa aukeratu zuen. Aparailuaren memoriak segundo laburrez lan egin ostean, pantaila hitzez bete zitzaion.

Izenburua: CONNEMARA GURE BIHOTZEAN

Argitaletxea:

Deskribapen laburra:
Txemak galdu egin du bere betiko neska-laguna, Eider, auto-istripu batean. Hura ahaztu nahi eta ezinik dabilela, Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du Txemak, klabe sekretuz babesturiko disketean. Eiderren arimarekin bat egiteko eta ondoren betiko ahazteko asmoz, bidaia hori bera berregitea pentsatu du Txemak, eta Irlanda mitiko horren bila abiatzen da, disketea poltsikoan, zer topatuko duen jakin gabe. Oso erromantikoa da abiapuntua, baina kontuz, ezer ez baita lehen begiratuan dirudiena. Ustekabe ugari ditu Txemak zain, eta irakurleak irribarrez deskubrituko ditu bideko sorpresa horiek guztiak. Izan ere, itxura sinple eta sentimental baten azpian ezkutatu du Gabiriak bere gaiztakeria: hain da kokoloa Txema hori, hain da naif-a Eiderren egunkaria; maila desberdineko irakurketak uzten dizkigu egileak: berehalakoa, zuzen-zuzen eta erraza, edo sujerentziaren bidez erdi estalian doana bestela, sinbolismoz beteriko ipuin ederrak barne. Gazte batzuen abenturen nobela duzu esku artean, gazte batek idatzia; maitasunari buruzko eleberria ere bai, mezu ironiko bezain anbiguoa duena; Irlandan zehar egindako bidaiaren kronika ere aurkituko duzu, turistarentzako amu guztiak bertan dituela: bai Connemarako ikuspegi miresgarriak, bai IRA bera; labur esanda, idazlan fresko, arin, atsegin eta mamitsua, egile ausart baten lehen fruitu heldua.

IDAZLEA: JULEN GABIRIA

Julen Gabiria Lara bizkaitar idazle eta itzultzailea da. Itzultzaile eta idazle, nobela eta itzulpena jorratu du orain arte. Eusko Jaurlaritzan, IVAPen egiten du lan



Izenburua: OSTADAR 7310

Argitaletxea: denonartean

Deskribapen laburra:
Ostadar 7310 izeneko planetan bizi dira gizakiak. Androideak gizakien laguntzaileak dira. Dena da ederra eta zoragarria, H57 izeneko androide batek protagonistaren bizitza hankaz gora jarriko duen arte. Ezusteen kateak ez du atsedenik, jakin-minak bezalaxe

EZAGUTU ELEBERRIA!
Ostadar 7310-Pasartea-

Beltza. Isiltasunaren kolore berekoa. Ezereza. Leize-zulo sakonenean arnasten denaren modukoa. Erabateko belztasuna. Huraxe da ikusten ez dudana; edo ikusten dudana. Itsutu ez banaiz, hori baita sumatzen eta sentitzen dudan bizi-haria. Ez izatea bera dirudien beltzak irentsi nauelako. Bere isiltasun beldurgarriak harrapatuta nauka. Latza da hau.
Hormarik bada inon? Espazio zabal bat da hau? Zelai amaigabea? Zer da hau, baina? Banaizela badakit, hilik bezala egon aren, burua ardaila bizian dinbuluka dabilkidalako. Eroturik.
Eta halako batean lasterka hasi naiz. Zer bestela? Alferrik da, ordea. Ezerezak mugarik ez baitauka. Ez da amaitzen. Orduak eman ditzaket lasterka. Egunak. Hilabeteak. Urteak. Norantz? Noraino? Zertarako? Ez naiz inora iritsiko eta! Nora joan nahi dut, dagoeneko nonbait baldin banago! Hemen nago. Inon ez egotea deitzen zaion ez izatearen espazio honetan. Beltzaren beltzenean espetxeratua! Izatearen gabetze gordinena pairatzeko sortu zuten toki beldurgarrian. K77 deitze duten kartzelan.

IDAZLEA: IÑIGO IBARRA

1974 Iruñea (Nafarroa, Euskal Herria) nafar bertsolari eta idazlea da.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Arrastoa-Pasartea-

Arrasto baten atzetik bidali naute Iruñetik Lekun- berrira 1936ko uztail itogarri honetan, Sanferminen ostean; goardia zibileko detektibea naiz, uniformerik gabe ibiltzen direnetakoa, nondik informazioa ate- rako. Dohain berezia dut harremanetarako, berehala lortzen dut jendearen kon antza. Dena dela, gauzak nahasirik dabiltza herrialde honetan, munduan ere bai aspaldian, jendea aztoratuta, gorrotoa nonahi, eta edozer gerta daiteke, beste gerra bat agian; erre- keteak antolatzen ari dira alde guztietan, eta jende armatua daukate edozertarako prest

Izenburua: ARRASTOA

Argitaletxea: Alai

Deskribapen laburra:
36ko gerra zibilaren atarian, guardia zibileko detektibe bat bidali dute Lekunberrira hilketa bat ikertzera. Hantxe ezagutuko du pertsonai bitxi bat, aguazila, eta haren bizitza kontatuko digu, zeina korapiltzen baita, azkenean, hilketarekin eta gerra hasi berriarekin.

IDAZLEA: JUAN KRUZ IGERABIDE

Juan Kruz Igerabide Sarasola euskal idazlea da, literaturaren alor ugari jorratu dituena eta haur eta gazte literaturan lan ugari argitaratu dituena. Sari garrantzitsuak jaso ditu, besteak beste, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria 1999an, eta Espainiako Kritika Saria birritan, 1994an eta 2003an



Izenburua: UR BIREN ARTEAN
Argitaletxea: ELKAR

Deskribapen laburra: Orain dela 100 urte, 1914 eta 1919 bitartean, Lehen Mundu Gerra gertatu zen. Nola bizi izan zuten gertaera lazgarri hori Bilbo hirian eta itsasadarreko gainerako herrietan? Galdera horri ezin hobeto erantzuten diote liburuko 12 istorioek.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Ur biren artean -Pasartea-

“Arreta eskasarekin bazen ere, behin baino gehiagotan entzun genion amari gure izeko Mari espioi ibilia zela Gerra Handiaren garaian, baina gripe alu batek eraman zigun arte ez genuen benetan sinetsi laurogeita hamabost urteko atso zoragarri hura Mata Hariren parekoa izan zitekeenik”.

IDAZLEA: PATXI ITURREGI

“*Idazleak ikastetxeetan”* deritzon programak irakurleak aurrez aurre ezagutzeko aukera ederra eman dit, eta luxu hutsa deritzot. Liburua noiz, nola eta zergatik idatzi dudan azaltzen diet, egindako galderei erantzun eta nire esperientzia literarioa partekatzen dut haiekin. Eskolara joan aurretik irakaslearekin hitz egitea gustatzen zait, saioaren nondik norakoak azaldu eta xehetasunak denboraz adosteko. Aurrez aurreko saiorako proiektagailua beharko nuke.

Izenburua:
EZPAINETAKOA
Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra:
Bai idatzian eta bai ilustrazioan erotismoz osatutako narrazio iradokitzailea da “Ezpainetakoa”. Gorputza oso presente dago liburu osoan zehar eta, hain zuzen ere, gorputzetik abiatutako hausnarketen bidez gogoetatzen da bertan sexuaz, botereaz, maitasunaz eta espazio-banaketaz, besteak beste. XII. Peru Abarka Album Lehiaketaren idazlan irabazlea izan zen.

EZAGUTU ELEBERRIA!
Ezpainetakoa -Pasartea-

Gauza batzuk ez dira inoiz bukatzen.
Bukatu aurretik galdu egiten ditugu beti.

IDAZLEA: ANE LABAKA

Ikasle helduenekin lantzeko bide ugari eskaintzen ditu liburu honek. Hasteko, aukera ezin hobea izan daiteke adin tarte horretan landu ohi diren ohiko generoetatik pixka bat aldentzeko eta album ilustratuari ere bere tokia egiteko. Izan ere, liburu ilustratuen sorkuntza prozesuaz ere jardun gintezke gazteekin; testuaren eta irudien arteko harremanaz, ilustratzailearen lanaz... Gainera, ilustratzailea ere prest legoke idazlearekin batera eskoletara bertaratzeko.

IPUIN KONTALARIA!, IDAZLEA: LUPE LEKUONA

Munduko ipuinak

Ipuin kontalaria naiz duela 16 urte. Adin guztietarako ipuin zoragarriak baditut.
HH-an animaliak protagonista diren ipuin pila dakizkit eta saio desberdinak egin ditzaket.
LH-an beste lekuetako abenturak ,ohiturak eta xelebrekeriak ezagutzeko aukera izango dute ipuin eta saio desberdinak eskainiz. Kamishibai teknika ere erabiltzen dut batzuetan.
Nire saioetan helburua fantasiaren mundura elkarrekin joatea da eta aldi berean ipuinekin disfrutatzea eta irakurzaletasuna sustatzea.



EZAGUTU ELEBERRIA!
Izar malkoak -Pasartea-

Izerditan blai nengoen.
Elkar ezagutze barregarria izan genuela esan daiteke, ez? Gerokoak… Zenbat buruhauste. Zenbat ostiako. Zer nahi duzu esatea: sinetsi egin nizun.
Behin baino gehiagotan esan zenidan, labur eta emeki. Maite ninduzula. Ez dakit nola ez nintzen konturatu. Maite ninduzula, hori esaten zenidan. Abisatu zidaten: zu uzteko, zu ahazteko; ez zenuela merezi… Baina zuk maite ninduzula esaten zenidan eta nik sinetsi egin nizun. Sinetsi egin nahi nizun.

Izenburua:
IZAR MALKOAK
Argitaletxea: Gaumin

Deskribapen laburra:
Beñat informatika munduan murgildurik dabilen gaztea da, hacker izateko bidean ondo kokatua. Bi neska ibiliko zaizkio inguruan: bata jatorragoa, ddarik gabe; bestea misteriotsuagoa eta erakargarriagoa, bizimodu ilunekoa eta asmo ezkutukoa. Zoratzeraino menperatuko du bigarrenak Beñat, nahiz eta mutilak horren jakitun egon. Sexuaren eta ilunaren erakargarritasuna, ordea, handia da.

IDAZLEA: FERNANDO MORILLO

Istorioen xuxurlek elikatzen naute. Maite ditut. Gure barnean gehiegitan sumatzen ez ditugun mitoen bila nabil etengabe. Kale-bazterretan pilatzen diren amets itzalien usainera. Amets itzali horiek pizteko. Filosofian lizentziatu nintzen eta urte batzuk eman nituen Fisikan. Mitoen bidea, zientziaren bidea, geure buru dantzarien bidea. Bide guztiak ibili nahi ditut. Eta haien hitz-adaxkak aurkitu. Eta sutondoan kontatu eta kantatu. Eta marraztu. Eta dastatu. Izan dena, izan litekeena. Neuri. Hurbiltzen zaretenoi. Nahi duzuen arte, biziz bizi!

Izenburua:
ESKULARRU BELTZAK
Argitaletxea:

Deskribapen laburra:

EZAGUTU ELEBERRIA!
Eskularru beltzak -Pasartea-

Larruzko txupa kendu zuen. Zutik jarri zen eta platera goitik behera botaz kamiseta tirantedun beltza zopaz blai geratu zitzaion. Isiltasuna jangelan. Inor ez zen larritu. Inor ez zen barrez hasi. Inork ez zion errietarik egin. Eta huraxe izan zen Beirerentzat okerrena, jendearen indiferentzia. Gurasoek ingelesa ikasteko barnetegi hartara bidaltzea baino amesgaizto handiagorik ezinezkoa zen. Uda hura bere bizitzako gorrotagarriena izango zela pentsatu zuen. Fuck!

IDAZLEA: JASONE OSORO

Honako hau Eskularru beltzak bildumako lehen liburua da. Gazteen abenturez gain, bestelako gaiak ere lantzen ditut bertan, hala nola bulling-a, ahalduntzea, bizitzan gertatzen diren atsekabeei aurre egitea etab. Azken finean, boxeoan bezala, bizitzan ere borrokatu egin behar da.

Saioetan, lehenik, liburua idazteko prozesuaz hitz egingo dut, irudimenaren garrantziaz, nondik sortzen diren ideiak eta nola garatzen diren. Ariketa txiki eta erraz bat ere egingo dugu, ikusteko eskura dugula istorio bat sortzeko lehengaia. Ondoren, ikasleek aldez aurretik prestatu dituzten galderak erantzungo ditut.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Baina ez lukete han egon behar-Pasartea-

NI ZU NINTZEN
Korridorea emergentziazko argiek soilik argiztatzen dute. Goizeko laurak dira, baina Klausek ez daki, edo baldin badaki, berdin zaio. Ihes egin nahi du, zahar etxe madarikatu horretatik alde egin. Oinutsik jaitsi ditu bigarren solairutik lehenengora daramaten eskailerak, zelatan. Ezkerreko eskuan, arropaz beteriko maleta astun bat darama, eta soinean, pijama bat besterik ez.

Izenburua: BAINA EZ LUKETE HAN EGON BEHAR

Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra: Bakarrik jaio eta bakarrik hiltzen gara. Bitartean, hari ikusezin baten gainean orekari eusten saiatzen gara eta argazkiak ateratzen dizkigute. Gu argazkitakoak izaten saiatzen gara, baina ez gara. Gu argazkiaren atzean dagoena gara, irudiaren ertzetatik kanpo dagoena, eta bizitza ez da lerro zuzen bat, ibili ahala etengabe josten eta askatzen ari garen armiarma-sarea baizik. Ipuin-bilduma honetako pertsonaiak amaraun horretan bertan daude harrapatuta, beren beldur eta frustrazioekin, beren amets eta esperantzekin. Patua izan da aurreikusi ezin zuten egoera horretara eraman dituena, une ahulenean erabakitzera behartu dituena, kameraren objektiboaren aurrean irribarre egitera behartu dituena. Baina ez lukete han egon behar.

IDAZLEA: ASIER OSINALDE

Asier Osinalde Vidal naiz eta 1975. urtean jaion nintzen Donostian. Orain dela gutxi argitaratu dut lehen ipuin-liburua. Santo Tomas Lizeoan ikasi nuen lehenengo, eta, ondoren, EHUn, ingeniaritza teknikoa. Hala ere, beti aritu izan naiz irakasle lanean: hamabi urtez Lanbide Heziketan, eta, azken hamaikak, Donostiako IRALEn. Film laburretan aritu izan naiz modu amateurrean, eta, musikan ere bai, Ekilibristak taldearen eskutik. Oso gustuko dut bidaiatzea eta bizikletan ibiltzea, eta baita bien arteko edozein konbinazio ere.
Saiorako materiala prest dut eta, diapositiben laguntzaz, ipuinetan azaltzen diren hainbat gai eta galdera planteatzen dizkiet ikasleei; horrela, ordubete inguruko saio dinamikoa osatzen saiatzen naiz.



Izenburua: MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA

Argitaletxea: Pamiela

Deskribapen laburra:
1522 urtean eman zitzaion munduari bira lehenengoz, globalizazioaren hasiera izan zen, bidaia hura gure zibilizazioaz eztabaidatzeko aitzakia ederra da.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Munduari bira eman zion ontzia -Pasartea-

—Hori, horko liburu hori zeri buruzkoa da?
—Munduari itsasontziz eman zitzaion lehenengo bira aitzakiatzat hartuta egindako marrazkiak dira.
—Intxaur oskol antzeko barku horretan joan ziren?
—Naoa da hori, orduko itsasontzia. Krosko biribilekoa, txopan korasta-lema eta brankan ere gaztelua…
—Bela handiak erabiltzen zituzten, ezta?
—Hiru mastakoak: trinketa eta nagusia bela koadratuekin eta mesana oihal latinoarekin. Oihal handiak zabaltzen ziren haizeak bultza zezan ontzia.
—Eta nortzuk zihoazen munduari bira eman zion itsasontzi horretan?
—Bidaia luzea eta konplikatua izan zen. Bost ontzi abiatu ziren: 237 lagun joan ziren, eta 18 itzuliko ziren Victoria ontzian, munduari buelta emanda. Ez ziren, baina, horretarako joanak…
Itzuli zirenen kapitain Juan Sebastian Elkano zetorren, getariarra, hemengoa bertakoa.
—Ezagutzen zenuen zuk?
—Ez naiz hain zaharra, ume! Hori antzina gertatu zen, orain bost mende. Aspaldi-aspaldian.

IDAZLEA: JOSEBA SARRIONANDIA

Literatura bazterrean geratzen ari da kultura mediatiko eta kontsumistaren kontestuan, alferrikakoa eta anakronikoa balitz bezala. Autoreek ahalegin apur bat egin beharko dugu irakurleengana hurbiltzeko, pentsamendu kritikoa eta lengoaiaren posibilitate estetikoen balio erakusteko.
Eskolako irakasleekin kolabora dezakegula uste dut ikasleentzat literatura irakurtzea zeregin onuragarria eta atsegina izan dadin.

SAIO MUSIKALA

"Literaturatik musikara" saio musikatua eskaintzen dut. Saioa hiru zatitan banatuta dago.

Nire idazle eta musikari ibilbidea zein izan den argitzen diet (20 min.)
Bisitaren aurretik ikasleek nire inguruan landutakoaren inguruko galderak erantzuten ditut, horretarako, eta irakasleak lagunduta, nire inguruko informazioa aurkitu behar dute interneten, hemerotekan, liburutegian... (20 min.)
4-5 abesti kantatzen ditut gitarraren laguntzaz, nire konposatzeko modua zein den erakusteko (20 min.)

ASIER SERRANO

1997an Bada hiri gorri bat argitaratu zuenetik, hainbat poema liburu argitaratu ditu: Picassoren zaldia, Hiri gorritik eta Desterratuen piztiarioa. 2001ean Hoteleko kontuak narrazio bilduma eta Mari Basajaunaren eremuan haurrentzako liburua argitaratu zituen. Horrez gain, bi eleberri argitaratu ditu: Eskuetan mapak eta Erlojugilea. Literaturaz gain, musika munduan ere hainbat lan egindakoa da: Lorelei taldeko abeslaria eta letragilea da eta bakarka hainbat disko atera ditu, hala nola, Ez esan inori, Hoteleko kantuak eta Gerrari bai.

Izenburua: EIREREN EGUTEGIA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra: Eirek gorroto du ingelesa. Gurasoek Irlandara bidaliko dute alaba udan, ingelesa hobetu dezan; oporraldi luzean era guztietako esperientziak ezagutuko ditu neskak: maitasuna, jeloskortasuna, arrakastak eta porrotak

EZAGUTU ELEBERRIA!

Eireren egutegia -Pasartea-

Nire izena Eire da. Bai; ez da Leire, Eire baizik. Eta horrela deitzen banaiz ez da gurasoek izenaren aurreko L hori patata frijituekin jatea erabaki zutelako, edo jaiotza-agirian ditxosozko letra hori idaztea ahaztu zitzaielako. Ez. L-rik gabe da, eta kito. Beraz, existitzen ez den L mamu-letra horren kontuari hainbeste buelta emateari utzi eta, hemendik aurrera, sartu ondo buruan Eire dela (eta ez Leire!).
Barkatu; amak idatzarazi didan eguneroko honi emandako hasiera zatarra irakurtzean, agian apur bat desatsegina naizela irudituko zitzaizun, baina, hamahiru urteko bizitza luze honetan, ez dakizu zenbat aldiz entzun behar izan ditudan nire izenari buruzko komentarioak, eta apur bat nazkatuta nago honezkero. (…)
Apur bat behatzailea bazara, ziurrenik aspaldi konturatuko zinen euro txanponetan Europar Batasuneko hainbat lekuren izen eta irudiak agertzen direla. Eta seguru noizbait topo egin duzula harpa handi baten irudia duen txanponen batekin. Bada, txanpon horietako bat esku artean duzunean, begiratu irudiari arretaz, eta nire izena ikusiko duzu, Irlandaren sinboloa den musika-tresnaren ezkerraldean grabatuta.

IDAZLEA: ESTI VIVANCO

Esti Vivanco (Bilbo, 1989). Idazteaz gain, hizkuntza-irakasle lanetan dihardut Bigarren Hezkuntzan. Orain arte bost liburu kaleratu ditut, eskolan ikasleekin lantzeko ezin aproposagoak. Saioetan ikasleek irakurritako liburuaren errepasoa egiten dut, euren gustuko gaiak era bisualean jorratuz eta parte-hartzea zein elkarreragina sustatuz. Horretarako, teknologia berriak eta ikus-entzunezkoak erabiltzen ditut. Ikastetxeetara joan baino lehen, irakasleekin adosten ditut saioaren helburuak eta bestelako xehetasunak.

EZAGUTU ELEBERRIA!
L.A.A. -Pasartea-

Handik gutxira entzun nuen txirrin lasaia. Errezela artetik erraz begizta nezakeen haren irudi ilun ezaguna. Bigarren atea zeharkatu zuenean, ordea, ez nintzen ohi bezala mailadiaren gailurrean agertu.

Izenburua: L.A.A.
Argitaletxea: Algaida

Deskribapen laburra:
Gaia: indarkeria matxista.

Donostian kokaturiko thriller psikologiko honek egileari jazotako gertaera batzuk ditu abiapuntu. Duela urte batzuk, emakume batek laguntza eskatu zion senarraren jipoia jaso ondoren. Ubelduz beteta agertu zen, heriotza mehatxuaren pean, erabat izututa…
Liburu honetan maitasun istorioa dirudienaren inguruan, gezurra, izua, mendekua… aurkituko ditugu, guztia gainditzeko bide bakarra bakoitzaren bakardadea haustea Izango delarik.
-Informazio gehiago:
https://www.maixazugasti.eus/bibliografia/l-a-a/

IDAZLEA: MAIXA ZUGASTI

Haur eta gazte literaturako irakurleekin partekatutako uneak oso aberatsak dira niretzat. Saioetan, lehenbizi, liburuaren gaia jorratzen dut, eta ondoren, galderak erantzuten ditut. Ikastetxera joan aurretik irakasleekin hitz egiten dut eta saioaren nondik norakoak azaltzen dizkiet



EZAGUTU ELEBERRIA!

110 Street-eko geltokia -Pasartea-

Nekaturik zihoan, 42. Street-ean zehar, lanbropean, gabardina handi bat soinean eta ingeles estiloko kapela buruan. Haize bustiak jo ez zezan, zerbait makurturik zeramatzan bizkarrak, eskuak poltsikoetan eta lepokoa sudurzuloetaraino. Hotza zen urtarrileko ilunabartze hartan Manhattanen

Izenburua: 110 STREET-EKO GELTOKIA

Argitaletxea: Elkar

Deskribapen laburra:
Euskal iheslari/errefuxiatu bat New York bizi da, dokumentu legalik gabe. Abentura, amodioa, hiri erraldoietako bakardadea, sexu jazarpena, laguntasuna eta solidaritatea...bertan daude.

IDAZLEA: IÑAKI ZABALETA

Hitzaldian, ikasleen parte-hartzea lortzen eta arreta erakartzen ahalegin berezia jartzen dut. Horretarako, galderak (edozein galdera) egitera animatzen ditut. Halaber, New Yorki buruzko bideoak jartzen dizkiet, nobelaren ekintza eta giroa irudika dezaten



EZAGUTU ELEBERRIA!

Tripoli Kabul-Pasartea-

Urteetako txangoa izan da Tripoli eta Kabul artekoa. Bidean, gerrak, goseteak eta injustiziak etxetik kanporatutakoekin egin dut topo. Mugak zeharkatu ohi dituzte, mendebalderantz beti, nire kontrako norabidean. Erraza da Donostiatik Kabulera joatea, Tripolitik igarota bada ere, baina ez alderantziz. Funtsean, gerrak familien etxeetako atea jo eta bota egiten du. Etxe horietako barrukoenak dituzue istorio hauek guztiak

Izenburua: TRIPOLI KABUL

Argitaletxea: Gaumin

Deskribapen laburra:
Hainbat mediotan kolaboratu izan du kazetari donostiarrak eta liburuko pasarte batzuk korrespontsal lan horietan bildutako materialekin osatu ditu

IDAZLEA: KARLOS ZURUTUZA

Karlos Zurutuza euskal kazetari independentea da eta freelance modura egiten du lan. Euskal Herriko zein atzerriko zenbait hedabiderentzat egiten du lan, eta bereziki, gatazkan dauden herrialdeetan barrena mugitzen da.

EZAGUTU ELEBERRIA!

Zabaleko txorimaloa -Pasartea-

Handik aurrera elkarrekin egon ginen Maider eta biok kanpalekuan. Bikoteide bihurtu ginela esan daiteke. Autobusean, elkarren ondoan itzuli ginen, igande arratsean, eta haren erretrau batzuk marraztu nituen. Asko gustatu zitzaizkiola esan zidan.

Izenburua: ZABALEKO TXORIMALOA

Argitaletxea: elkar

Deskribapen laburra:
Bi gaztetxoren arteko amodio istorioa da, tartean, bitartekari moduan, txorimalo berezi bat dagoela.

IDAZLEA: JUAN LUIS ZABALA

Eskoletan egiten ditudan saioetan gustura aritu ohi naiz. Maite dut ikasleen galderei erantzutea, batzuetan ezustekoak izaten badira ere. Egia da liburuari buruzko azalpenik onenak liburuak berak ematen dituela, edo eman behar dituela, baina liburuak gai askori buruzko jakin-mina piztu dezake, eta hori pozgarria izaten da idazlearentzat.

EZAGUTU ELEBERRIA!
1948ko uda -Pasartea-

Atzera tiraderako gauzak lehen bezala ipintzen ari zela, zerbait arrotzari antzeman zion puruen azpialdean. Hango gauzetan apur bat arakatu, eta, berehala, kaxoi hondoa estaltzen zuen paper zurixkaren azpian, liburuxka zahar antzeko bat topatu zuen. Hura zabaltzearekin batera, lehen orrialdean izen hau irakurri zuen: “José Galparsoro”. Idazkerari erreparatu zionean, liburuxka hura gazte baten egunerokoa iruditu zitzaion. Eta balizko eguneroko hartan zer ote zegoen aztertzeko denbora gehiago beharko zuelako edo, beste zigarro bat hartu, eta, ohi zuen bezala, balkoira irten zen.

Izenburua: 1948ko uda

Argitaletxea: Erein

Deskribapen laburra:
Astelehenean daukan Gizarteko azterketa dela eta, larunbat arratsaldean Beñat etxean geratu da. Dena dela, asteburuetan ikasi behar izatea aspergarria zaionez, liburuak bertan behera utzi, eta gurasoen logelara jo du, aitari zigarro bat lapurtzeko asmotan. Baina zigarropean koaderno zahar bat dago, eguneroko moduko bat, eta horrexek piztuko du mutikoaren jakin-gosea, zeren han gerraosteko gazte baten bizipenak agertzen baitira, batzuk ezagunak, bestetzuk guztiz ezezagunak.

IDAZLEA: PATXI ZUBIZARRETA

Patxi Zubizarreta Dorronsoro euskal idazle oparoa da. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Gasteizen, egun, bertan bizi da. Helduen Literaturan eta itzulpengintzan lan asko egindakoa den arren, Haur eta Gazte Literaturan argitaratutako lanengatik da bereziki ezaguna.

OHARRA

Idazlea hautatzerakoan, eskuragarri izango dituzue idazlearen bibliografiako liburu asko, hemen, lagin moduan ziklo honetarako nabarmendutakoa besterik agertzen ez den arren.

Aukeratzerakoan edozein zalantza edo arazo izatekotan, mesedez, jarri zaitezte gurekin harremanetan email helbide honetan: komunika@idazleak.eus